



## **Kontseilu Errektoreko kideen ordainsari-politika**

Kontseilu Errektorearen ordainsari-politikari dagokionez, adierazi behar da LABORAL Kutxaren Ohiko Batzar Nagusiak aho batez onartu zuela (aurkako botorik eta abstentziorik gabe) 2022ko apirilaren 8an egindako bilkuran, eta deitutako bazkideen % 2,58 bertaratu zela, 130.928 botoren titularrak, hau da, boto guztien % 40,63, honako erabaki honen arabera:

«Kontseilu Errektorearen Ordainsari Politika onartzea, estatutuetan aurreikusitako ordainsari-sistemaren eta indarrean dagoen araudiaren arabera proposamen gisa aurkeztu dena, eta Caja Laboral Popular Coop. de Crédito Kontseilu Errektoreko lehendakariaren zuzeneko kudeaketa ordaindu dezan ezartzea. Gainerako kontseilariei bertaratze-dieten bidez ordainduko zaie, Kontseilu Errektorearen bileretan eta batzorde delegatuetan betetzen dituzten zereginen arabera. Kontseilarien arduraldia zein erantzukizuna hartuko dira oinarri bertaratze-dietaren ordainsariak zehazteko.

Kontseilari guztien ordainsarien urteko gehieneko zenbatekoa 300.000€ eurokoa da. Zenbateko horri bere horretan eutsiko zaio ondorengo ekitaldietan, Batzorde Nagusiak beste kopuru bat erabakitzen ez badu.

Kontseilu Errektoreari eskuordetuko zaio kontseilarien ordainsariak banatzeko ahalmena, Kontseiluak berak hartutako erabakien arabera, betiere lehen adierazitako mugaren barruan.»